

Morfologiaren eta sintaxiaren (h)istori(o)ak

Borja Ariztimuño Lopez & Dorota Krajewska (UPV/EHU & Aziti Bihia)

(1) Irakurri ondoko testua eta iruzkindu gaurko euskararekiko aldeak.

- (1) Ditzabageau joan nintzan ezer baga eskuetan;
etsaiorrez topa nindin gradaetan
legoala ballesta bat armaetan:
[...]
— Ez al deustak bardin egia kontaetan!
— Igo egin laster, eze eurk dakusken erietan.
Igo neben bista baga begietan.
Neure jaunak baesadan:
— Nora zatoz penaetan?
- (2) Bere kantaetea Sirenak akabadurik, urten eben ain laster Silvero egoan lekurean, eze ez zan bastadu inor bere biurketan. Silverok ainbat sentidu eben, bada, Sirenak esan eben berbaak, eze erori zidin jarririk egoan silla baterean, ain agitz eze, Silvia itsatsi ez ballako, ez zatean mirakuru an ila.

(2) Nola azalduko zenituzke (1-4)-ko postposizioak? Zer aldaketa (fonologiko, morfosintaktiko, semantiko...) gertatu zaie?

- (1) *landa*
(2) *gibel*
(3) *aurre*
(4) *ondo*

(3) Zein katebegitan ezarriko zenuke ondoko esaldi bakoitza? Bada zure hizkeran ezinezkoa denik? Etorkizun hutsa adierazten ote du inoiz *behar* partikulak? Zer dela-eta (ez)?

beharrizana > obligazioa > asmoa > geroaldia

1. *Bihar zinemara joan behar dut.*
2. *Azkenean zer, etorri behar al duzu?*
3. *Ardoa behar dut.*
4. *Hurrengo hauteskundeak irabazi behar ditugu.*
5. *Gauean etxekolanak egin behar ditut.*
6. *Datorren urtean goenkale bukatu behar omen da.*
7. *Pixa egin behar dut.*
8. *Bazkaldu behar duzu?*